

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Hogeita hamar enpresak berdintasun planak ezartzeko trebakuntza programa batean parte hartu dute

71 pertsonak hartu dute parte Berdintasunerako Nafarroako Institutuak antolatu dituen lau prestakuntza ekintzetan

Jueves, 22 de septiembre de 2011

30 enpresak hartu dute parte Berdintasunerako Nafarroako Institutuak antolatu dituen lau prestakuntza ekintzetan. Ekintza horiei esker, haien enpresetan genero berdintasunerako planak ezartzeko aholkularitza eskaintzen da. Guztira 71 pertsona, 48 emakume eta 23 gizon, izan dira ekainan eta irailean egin diren jardunaldietan.



Prestakuntza ekintzetan parte hartu dutenak

Ekintzak Nafarroako Gobernuak berdintasun planak egiteko diruz laguntzen dituen enpresa eta erakundeei daude zuzenduta, eta horien helburuak laguntza jasotzen duten proiektuen kalitatea bermatzea eta proiektu horiek Foru Gobernuan genero berdintasuna (IGE) ezartzeko prozedurara egokitzea dira. IGE prozedura horrek enpresa bikaintasuaren EFQM ereduan du oinarria, hortaz, etengabeko hobekuntzara begira dago.

Enpresa hauek hartu zuten parte: Amma Navarra S.L., Animsa, Asociación Xilema, Burlatako Udala, Lizarrako Udala, Construcciones Abaigar S.A., DYA, Estructuras Poliméricas S.L., Fundación Varazdin, Gesport Gestión Deporte S.L., Hussmman Koxka S.L., Ibertissue S.L., Ingeteam Energy S.L., Ingeteam Paneles S.A.U., Itxako Kirol Elkarte, José Irigoyen Jara S.L., Laseme, M Torres Diseños Industriales S.A.U., Magnesitas Navarras S.A., Nafarco, Nuevo Futuro, Pamplona Distribución S.A., Ricardo Galdeano Sánchez S.L., Sedena S.L., Ultracongelados Virto S.A., Nafarroako Unibertsitate Publikoa, Vda. de Cayo Sáinz S.L., Vega Mayor S.L., Viscofan S.A., Zeroa Multimedia S.A.

Lehen bi egunak, ekainak 16 eta 21, berdintasun plana egiten ari diren erakundeentzat izan zen. Orduan, berdintasunaren esparru kontzeptuala, legala eta enpresako esparrua bezalako gaiak landu zituzten, baita emakumeak eta gizonak barne hartzen dituen komunikazioa egiteak duen garrantzia ere, IGE prozedurak proposaturiko metodoarekin bat etorritik.

Irailaren 20an eta 22an beste bi saio egin dira, planetan jasotako ekintzak abian jartzeko prozesuan diren erakundeentzat. Horietan aldaketa prozesuei buruz egin da gogoeta, emaitza hobekak eta iraunkorragoak lortzeko.

Gogorarazi behar da, Berdintasunerako Nafarroako Institutuak 2009tik diru-laguntzen erakunde onuradunei doako prestakuntza eskaintzen diela genero berdintasunerako planak egin ditzaten. Ordutik, 90 proiektuk jaso dute laguntza eta 155 pertsonak hartu dute parte ekintza horietan.